

## «ESKU ALKARTUAK»\*

Gai oni buruzko Ian bat sarri eskatu izan dauste. Baifia, beti ez bait da al izaten, gaur arte ez naz jarri eskabide orri dagokion erantzuna emoten. Gaur, ostera, ez dot cpe luzeagorik artu nai izan, idatzi ta kitu baino.

Euskaldunok, gaurkoz beintzat, goserik ez dogun arren, minez askotan darabilgun itza da «gosea»; atarako edo onetarako, eleiz-itzaldietan, aldizkari ta egunerokoetan sarri darabilgun berbea. Au batez be, ortarako ardurea daben etxe berezi, alkarte, bazkun eta erakundeak. Gogoz artu ezkerro gauza bat, baztarrak astintzea egoki da nai doguna lortu arte.

Inok ezin daikegu uka, izan be, arlo onetan, gose-arazoan Ian egiteko guraria. Gosea, dakigunez, ez jaku lagun gozoa. Gose gareanean, dei dagigu: umetxoak negarrez, nagusi ta adinekoak zarataka, sentitzen dogun jan edo edan-naia milla eratan adierazoz. Bardintsu egin oi dabe abere ta piztiak be.

Kristok, erakutsi • euskun otoitzean, bere Aita betikoari «ogia» eskatu bear geuntsoia dinosku: «Emoiguzu gaur eguneroko ogia». Eta Eleizeak, erriaren aldeko eskarietan, onela diardu: «Emon, Jauna, lureko frutuak, guztiak izan dagien eguneroko ogia». Batzuk eta bestetzuk, onek eta arek, eten barik eskatzen dogu bear dogun janaria. Eta edaria... Munduan areatza ikaragarriak dagoz -or Afrika-, eta egarriz bizi da jentea, gosez baizen

ugan.

Ez da egitik kanporakoa, bada, bear-izan gorrian bizi dirala asko ta asko. Eta gizasemeok anaitasun aundia dagigula-ta, Kristoren alkartasun ontakuok alkarri lagundu bearrean gagoz, ez bairik bage. Argi dago emendik: eskuak alkartu, luzatu ta dardar eragin bearra daukagu beraz. Goiburu ta slogan ori ikurrintzat dogula, arazo orri dagokion ekinaldi ta kanpaina zuzena, egokia dogu bene-benetan. Ez norbere erantzunkizunari dagokionez bakarrik, baita erri ta laterri, erakunde ta zabalkunde maillan be. Askotan baifia miin-gaifi erabilli oi doguz asmo ta itzok, baifia putz arifean geratzen gure biozkada ta gurariak.

### Lagentza

Onan dakarre zabalkunde-paperak: «Munduan gosea iza-teak urtenbidea leuke, ondasunak eta doe pertsonalak alkarren artean banatuko balira? Mendebaleko ekonomi-krisia ezingo da Irugarren munduarekin kontatu barik konpondu. Munduko pobreak euren bozgoraillu izango diran eta euren aide egingo daben pertsonen bearrizanean dagozaneria dala, ba-dakigu. Ba-dakigu, bai, eskaleak sor-eraztea ez dala ona. Eta... zer egiten dogu?»

Biotz asko dagoz larri dagoan anaiari lagundu nai dautsoe-nak. Baita alkarteak be; bat, adibidez: «Esku Alkartuak» deritxo-na. Orretan jalgi oi ditu onek bere arnasa, aletin eta diruak. Guztiona da gosearen aurkako lana, dinosku; ez nirea ta zurea, guztiona baino. Baliotsu da zure lana, sos ori be bai, ta dagokion jomuga dau ikutzen, bidean alperrik galdu baga. Ez izan kezka-rik.

Noiztikoa da alkarte au? 1960'an sortu zan, ta arrezkero guztiz zabaldua dozu, makifiatxu bat lan egina. Asi zanetik au-rreratu bakoan, gaixorik dagozanen, zapalketen eta eskolarik ez daukanen aide, urterik urte, aspertu bagako lanari diarduana. Zelan ete? Diru-laguntzazko asmo ta proyektu askoren bitartez. Gosea izan arren elburu nagusi, ba ditu beste batzuk be: osasuna,

lugintza, kultura ta gizarte-garapenai buruzkoak nunbait.

Zer da zeatz-mcatz «Esku Alkartuak» deritxon bazkuna? Irugarren Munduko giza-taldeai laguntza *zuzenean* emoten dautsen erakunde bat; «jakifia, ifiongo gobernukoa ez dan erakunde». «Esku Alkartuak» onek gosearen aurkako kanpainarako slogan batzuk artu oi ditu urtero, ta igazkoa auxe izan zan: «Gosearen aurka... guztion burruka».

«Esku Alkartuak», 1985'gn. urtean, osorik edo ez-osorik, urrengo zerok fmanziatu zituan:

-117 garapen-proiektu Afrika'ko 28 errialdetan. Guztira: 211.704.555 pta., eta Etiopia'ra, presazko laguntza lez, 10.731.001 pta., bialdu ditu.

-297 garapen-proiektu Ameriketako 16 errialdetan. Guztira: 473.527.388 pta.

-163 garapen-proiektu Asia'ko sei errialdetan. Guztira: 326.204.488 pta.

Guztion burruka ta bakotxarena, arazoaren larritasunaz ito barik, esku alkartu askoren indarraz oartuta baifio. Batzen dauan diru-kopurua goraka badoa be, ba-daki oraindik gauza gitxi egiten dauana, eta arazo oni buruz «kontzientzia nazional bat eta borondate politiko bat» bear dana be.

#### Gosearen aurka jokatu bearra

Zer da au? Zer adierazo nai dogu onegaz? Danok leia bizian, eta zer errazoiz? Gizaldi ontan ainbat eta ainbat aurrerakuntza daukaguz, teknologiari buruz batez be. Eta 100.000 lagun, egunero gosez ilten, eta beste milloika asko ozta-ozta bizi-rik... Porrot egin ete dogu? Lotsagarria litzateke au gizadiarentzat.

Eta «Esku Alkartuak», egoera gordin orren aurrean sumindurik, burrukarako del dagisku. Ez izkillu ta armakaz, borondate onagaz baifio. Gosearen aurka, gosea dakarren iturrien aurka, jakifia. Errazoi bitxia: Afrika'n gosea dagoala, baina euririk egiten

ez daualako dala esanez, kitu ta besterik ez, naikotze sustar bakoa dozu. Jainkoak zer asko itxita daukaz gizonak, leial eta maitez jokatirik, gosea ta beste milla gauza, giza-bizitzarako eragozpen diranak, zuzen-azo ta artez jarteko. Orrela ez ba'dagi, norberekeriaren erpa artean bizi dalako da. Barru-etiketa osasuntsu bat falta da, bakotxak olan nai dauana egiten dau, eta ortik, gizon-emakumeen gaixo ortatik sortuak ditugu ainbat gaitz eta zoritxar, bai gizarte aldekoak, bai kultura aldekoak eta bai ekonomipolitiko aldekoak. Gizonago gareanean uxatuko doguz gatxok mundutik.

Ederto difio «Esku Alkartuak» egitarauak «Gosearen aurka ekitea osasun, nekezaritza, biziera eta osagintza arloetan munduan sortzen diren aurrerapenak ezagutzea eta zabaltzea da, eta munduko lurralde atzeratuenetan aurrerapenok jartzen ahalegintzen diren proiektuen aide egitea». Astiro ta gogoz ausnartu ta gogoketa egitera garozten itzak eta pentsamentuak. Bcste edozein gai garrantzitsuz lez kontzientzi artu ta lanean jarri bearra.

Jarraian difioan au be ezta azur utsa. «Gosearen aurka ekitea -difio- geure astia, ahalmena, dirua emotea da eta geure bizitzako urte batzuk Ian horretan sartuta emotea, bai Hirugarren Munduan bertan, hori egiteko eran egon ezker, bai arazo hau gure gizartean zabal-eraziz eta ezaguteraziz» Leenengo bidea ba leiteke edozeiftek egin ezina izatea, baifia bigarrena -arazo orren zabaltzaille gizartean izan- gogo oneko izanez, edonork egin daikena dozu.

Barriro esanda be, burrukara dei dagisku «Esku Alkartuak» bazkunak. Guztion burrukara, kinka larri bateau danok eskua sartu bear dogula-ta. Au da, errialde, Gobernu ta erakundeak batez be. «Heurei dagokie -difio- munduan gose izatearen zergaitietako asko zuzentzea. Baina, jakina, herrialdeak, Gobernuak eta erakundeak ez dira izaki abstraktuak, gizon-emakumeak osotuak baino eta aldatzeko borondateak erne, gizon-emakumeen bihotzetan erne behar dau. Guztion burruka eta bakoitzarena, arazo larri horren aurrean leher egin barik, esku alkartu askoren

indarraz ohartuta baino».

Ez bananduta, bai alkaturik. Indar askoren lanak frutu geiago ta obeak ekarten. Dei onek bizkortu ta senti-azo beiz gure biotzak. Ez daigun «gosea dago munduan», «ainbat umetxo ilten dira urtean gosez eta egarriz», «ainbat gizon eta emakume daukaguz munduan kultura-izpi barik» esan bakarrik. Ez gaitazan beti ezkor izan; barrua aize-barriz ta ingurua baikor giroz kezkatutik, guztiok, al gifioan, eskuak alkaturik, lanari ekin daiogun. Orrela Afrika'n, Asia'n, Ozeania'n naiz Amerika'n zernaitaz gose diranen egoera larria, osorik ezpada be, zerbait beintzat arindu ta murriztu egingo dogu. Eta au ez ete da ezer? Eskuak arlorra...

*Aita Onaindia*